

EAEko zerbitzuetao langileen mahai negoziatzailea izan dugu Lakuan nahi baino eduki gutxiagorekin



LABetik salatu nahi dugu deialdia eta dokumentazioa ostiral eguerdian jaso genituela. Beste behin ere, oso denbora gutxi izan dugu guztia aztertu ahal izateko. Honek atzeratu egiten du guztia.

Batetik, LABetik egin nahi ditugun ekarpenak atzeratzen dira eta ondorioz, hartu beharreko erabakiak eta adostasunak lortzea. Berriz ere esaten dugu LABetik, **mahaiak deitzeaz gain, hauek edukiz bete behar direla. Gai ordenean honako gai hauek zeuden:** Gizarte-funtza, Formazio funtza, garbiketako zerrenden irekiera, Ordezkapidearen araudia eta LPZren aldaketa.

Aipatutako gai hauetaz gain, **LABetik honetaz gain, gai ordenean** besteak beste, Barne sustapenak, funtzio eta maiztasunak, Produktzioagatiko kontratuen akordioa eta Lekualdatze lehiaketa **txertatzea eskatu dugu.** Eta gainera aipatu badira ere, aurrerago landuko ditugula adierazi digute. Dokumentazioa denbora nahikoarekin bidaltzeko eskatu dugu.

Honelakoak landu ditugu gaurko bileran:

Gizarte eta Formazio funtsak

Gizarte eta formazio funtsen deialdi proposamenak aurkeztu dizkigute. Gogoratu nahi dugu, gizarte funtsera 15.000 euro bideratzen direla eta beste hainbeste formazio funtsera. Azken urteetan formazio funtsean eman den diru soberakina kontuan izanda eta LABek urteetan egindako eskaerari erantzunez, diru kopuru hori funtsez aldatzeko aukera ireki da, formaziotik gizarte funtsera pasako litzateke beraz diru soberakina, egongo balitz.

Garbiketako zerrenda irekiera

Ordezkapen arazoak saihesteko eta kontuan izanik gainera hirugarren hiruhilabetean 60 urtetik gorako langileen murrizketa metatuak gauzatuko direla,

otsailaren 10ean sukaldeko langileetan egin bezala, gaurkoan garbiketako zerrendak irekitzeko akordioa erdietsi dugu. Akordiaren jarraipena mahai parekidean egingo da. **Ezinbestekoa da lehenbailehen zerrendak irekitzea**, izan ere, Lan Hitzarmenean sinatu bezala irailetik irekita egon beharko lirateke. **Zerrendak martxo bukaeran irekitzea aurreikusten dutela esan digute**. Informazio gehiago eta deialdi zehatza ditugunean, zabalduko dugu.

Ordezkaribidea-ren araudia

Hezkuntza Saileko kolektibo guztietan esleipen telematikoen araudiak bateratu nahi dituzte, kolektiboen artean ezberdintasunik ez egiteko batetik eta bestetik, informatikoki erangikorrago izateko. **Ildo horretatik proposamen bat helarazi digute**. Arretaz aztertu nahi dugu atzera urratsik ez dela ematen ziurtatzeko. Hurrengo egunetan ekarpenak egingo dizkiogu proposamenari.

LPZn aldaketa

Batetik, 2024-2025 ikasturtean eta 2025-2026 ikasturtean errepikatutako ekoizpen kontratuak kontuan izanda. Bestetik Lan Hitzarmenean sinatutako sukaldeko ratio berriak kontuan izanik, **hamabost bat kontratu sortuko dira, kasu batzuetan lanpostu berriak sortuz eta besteetan jardunak osatuz**.

Garbiketan Lan Hitzarmenean jasotako **metro jaitsierari erantzuteko azterketa urgentea egin dezaten eskatu diogu Sailari**, oso toki gutxitan jarri direlako errefortsuak eta ondorioz lan kargak ez dira arindu. Hala ere datu guztiak idatziz helarazteko eskatu dugu LABetik, gure datuekin konparaketa egin eta behar diren ekarpenak egiteko.

Beste gai batzuk

LABek aurreko mahaietan egin bezala gaurkoan ere eta Lan Hitzarmenean sinatu bezala **lekualdatze lehiaketa gauzatzea eskatu du**. Proposamen bat idatziz helaraziko digutela esan digute.

Errelebo kontratuarekin administrazio osoan dagoen blokeoari irtenbidea emateko proposamen bat aztertzen ari direla aipatu digute, EAEko hezkuntzako lan legepeko langileei aplikagarri litzatekena. Baina oraindik haiek proposamenaren bideragarritasuna aztertzen ari dira eta guri ez digute zehaztapenik egin. Argitu ahala informatuko zaituztegu.

IKT langileei dagokionez, Madriletik datorren langile publikoen soldata igoera eta ondorioz langile hauen soldataren eguneraketa EHAAn Lan Hitzarmena argitaratu eta kategoria berria sortzean gauzatuko da. Gertutik jarraituko dugu langile hauen egoera.

LABetik lanean jarraituko dugu lan hitzarmena garatzeko.

Hoy se ha celebrado en Lakua la Mesa Negociadora del Personal de Servicios de la CAV con menos contenido de lo deseado



Desde LAB queremos denunciar que recibimos la convocatoria y la documentación el viernes al mediodía. Una vez más, hemos tenido muy poco tiempo para poder analizarlo todo en profundidad. Este hecho lo retrasa todo.

Por un lado, se retrasan las alegaciones que queremos hacer desde LAB y en consecuencia, se retrasan los acuerdos y consensos. Desde LAB insistimos en que, **además de convocar las mesas, éstas han de llenarse de contenido. En el orden del día estaban los siguientes temas:** Fondo Social, Fondo de Formación, apertura de listas de limpieza, normativa Ordezkabidea y modificación de la RPT.

Además de los temas mencionados, **desde LAB solicitamos la incorporación al orden del día** las Promociones internas, funciones y frecuencias, acuerdo de contratos por producción y concurso de traslados, entre otros. Y aunque se han mencionado por encima, nos han dicho que se tratarán más adelante. Hemos solicitado que en todo caso, se nos envíe la documentación necesaria con suficiente tiempo de antelación.

En la reunión de hoy hemos tratado los siguientes temas:

Fondos Sociales y Formativos

Nos han presentado las propuestas para las convocatorias de fondos sociales y de formación. Queremos recordar que al fondo social se destinan 15000 euros y al fondo de formación otros tantos. Teniendo en cuenta el dinero que ha sobrado en los últimos años en el fondo de formación y atendiendo a la petición realizada por LAB durante años, se posibilitará que esa cantidad sobrante, si la hubiera, cambie de fondos, por lo que del de formación pasaría al fondo social.

Apertura de listas de limpieza

Con el fin de evitar problemas para cubrir sustituciones y teniendo en cuenta además que en el tercer trimestre entrarán en vigor reducciones de jornada acumuladas del personal mayor de 60 años,

tal y como se hizo el 10 de febrero para el personal de cocina, **hoy se ha alcanzado un acuerdo para abrir las listas de limpieza**. El seguimiento de dicho acuerdo se realizará en la mesa paritaria. **Es imprescindible que se abran listas cuanto antes**, es más, tal y como se firmó en el Convenio Laboral estas deberían estar abiertas desde septiembre. **Nos dicen que prevén abrir las listas a finales de marzo**. Cuando tengamos más información y la convocatoria detallada, os informaremos.

Normativa de Ordezkaidea

Desde el Departamento **quieren unificar las normativas para las adjudicaciones telemáticas en todos los colectivos del Departamento de Educación**, con el fin de evitar diferencias entre los distintos colectivos y de que el procedimiento sea informáticamente más eficiente. **Nos han trasladado una propuesta en este sentido**. Queremos estudiarla detenidamente para asegurarnos de que no se den pasos atrás. En los próximos días realizaremos las alegaciones pertinentes a la propuesta.

Modificación de la RPT

Teniendo en cuenta, por un lado, los contratos de producción repetidos en los cursos 2024-2025 y 2025-2026 y, por otro, los nuevos ratios de cocina firmadas en el Convenio Laboral, **se generarán una quincena de jornadas laborales, en unos casos se crearán nuevos puestos de trabajo y en otros, se complementarán las jornadas**.

Se ha **solicitado desde LAB al Departamento la realización de un estudio urgente para dar respuesta a la bajada de metros** recogida en el Convenio Laboral en materia de limpieza, ya que son casi inexistentes los refuerzos que se han destinado, lo que ha impedido que se alivien las cargas de trabajo. Desde LAB hemos pedido que nos hagan llegar todos los datos por escrito para hacer la comparación con los nuestros y así poder hacer las alegaciones oportunas.

Otros temas

LAB, como ya ha hecho en mesas pasadas, **ha pedido que se lleve a cabo el concurso de traslados tal y como se ha firmado en el Convenio Laboral**. Nos dicen que nos harán llegar una propuesta por escrito.

Nos comentan que se está estudiando una propuesta para dar solución al bloqueo que existe en toda la administración para con el **contrato relevo** y que esta sería aplicable al personal laboral del Departamento de Educación de la CAV. Al parecer todavía están estudiando la viabilidad de la propuesta y no se nos ha concretado nada. Os iremos informando a medida que dispongamos de más información.

En cuanto al personal TIC, el incremento salarial de los empleados públicos procedente de Madrid y la consiguiente actualización salarial, se hará efectiva con la publicación del Convenio Laboral en el BOPV y la creación de la nueva categoría. Seguiremos de cerca la situación de este colectivo.

Desde LAB seguiremos trabajando para desarrollar el convenio laboral.